

## ATZIZKIAK

Zer adierazten dute atzizkidun hitz hauek? Denbora, lekua edo modua?

|            |           |            |
|------------|-----------|------------|
| Liburutegi | arrastaka | gosete     |
| lasterka   | saltoka   | entzunaldi |
| oporraldi  | eurite    | gozotegi   |
| harategi   | hitzaldi  | haizete    |

Osatu esaldiak aurreko ariketako hitzak erabiliz.

- \_\_\_\_\_ra joango naiz liburu bat aukeratzera.
- \_\_\_\_\_a bukatu da! Bihar eskolako lehenengo eguna izango da.
- Atzo musika \_\_\_\_\_ batera joan ginen.
- Xabierren amak publizitatearen inguruko \_\_\_\_\_ bat eman zuen.
- Zelako \_\_\_\_\_a! Zuhaitz pila erori egin dira.
- Matxinsaltoa \_\_\_\_\_ ibiltzen da alde batetik bestera.
- Gaur \_\_\_\_\_ra joan behar naiz bi oilasko erostera.
- \_\_\_\_\_ak zeudenean, Nilo ibaiak gainezka egiten zuen

Osatu hitzak atzizki hauek erabiliz: -ka, -tegi, -ki, -aldi, -te, -keta

- |               |                |               |
|---------------|----------------|---------------|
| • Korri_____  | • Konpon_____  | • Liburu_____ |
| • Gose_____   | • Esne_____    | • Garbi_____  |
| • Txerri_____ | • Irakur _____ |               |
| • Entzun_____ | • Inurri _____ |               |

## DETERMINATZAILEAK: ZENBATZAILEAK ETA ERAKUSLEAK

**Bilatu esaldi hauetako determinatzaileak eta aukeratu zenbatzaileak edo erakusleak diren.**

- Pastel batzuk ekarri ditut.
- Etxe horiek oso politak dira.
- Gazte asko etorri da.
- Gaztelu horretara joan ginen pasaden asteburuan.
- Bi liburu erosi ditut.
- Emakume gutxi gerturatu dira.
- Etxe hartan bikote alemaniar bat bizi da.
- Hamar gaileta jan ditut gosaltzeko.
- Ume horrek hamar urte bete ditu.
- Hainbat lagun joan ginen festara.

**Bilatu zenbatzaileak eta aukeratu zehaztuak edo zehaztugabeak diren.**

- |                |                  |
|----------------|------------------|
| • Bost txakur  | • Lagun batzuk   |
| • Hainbat katu | • Irakasle askok |
| • Zenbait urte | • Hitz gutxi     |
| • Hamar lagun  |                  |

**Osatu esaldiak erakusle egokia erabiliz.**

- Neska (hau) \_\_\_\_\_ beroki gorri bat erosi du. (NORK)
- Mendi \_\_\_\_\_ (hori) igo ginen atzo. (NORA)
- Ume \_\_\_\_\_ (hura) motxila desagertu zaio. (NORI)
- Etxe \_\_\_\_\_ (hura) bizi naiz ni. (NON)
- Mutiko \_\_\_\_\_ (hori) liburua da hau. (NOREN)
- Lagun \_\_\_\_\_ (hau) joango naiz zinemara. (NOREKIN)
- Txakur \_\_\_\_\_ (hori) kaka egin du espaloi erdian. (NORK)
- Bide \_\_\_\_\_ (hura) etorri gara. (NONDIK)
- Beroki \_\_\_\_\_ (hau) kolorea oso polita da. (NOREN)
- Zartagin \_\_\_\_\_ (hori) frijituko ditut arrautzak. (NON)

## LABURDURAK ETA SIGLAK

---

### Lotu laburdurak:

|           |       |
|-----------|-------|
| jauna     | esk.  |
| kalea     | k.    |
| eskuina   | adib. |
| adibidez  | or.   |
| orrialdea | jn.   |
| ezkerra   | ezk.  |
| zenbakia  | pl.   |
| eta abar  | etab. |
| plaza     | zk.   |

### Idatzi asteko egunen laburdurak:

|             |            |             |           |
|-------------|------------|-------------|-----------|
| astelehena: | asteartea: | asteazkena: | osteguna: |
| ostirala:   | larunbata: | igandea:    |           |

### Idatzi siglak erabiliz:

- Euskal Autonomia Erkidegoa:
- Eusko Jaurlaritza:
- Ameriketako Estatu batuak:
- Euskal Irrati Telebista:
- Europar Batasuna:

## INTERJEKZIOAK

**Markatu esaldi hauetako interjekzioak.**

- - Ondo bizi zinen zu, e! - Bai, horixe!
- Hara! Begira nor datorren!
- Ene! Nora zoaz maleta handi horrekin!
- Aupa! Zer moduz?
- Utikan! Ez zaitut hemen ikusi nahi.
- - Egingo duzu hori? - Jakina!
- Et, et, et! Egon zaitetz geldi, etxerako lanak bukatu behar dituzu.
- Zer demontre! Nork apurtu du leihoa?
- Ala! Zelako marrazki polita!
- Ai ene! Autobusa galdu dut eta eskolara berandu iritsiko naiz!
- Kontxo! Zer egiten duzu zuk hemen!
- Adi! Bihar goizeko 9:00etan hartuko dugu autobusa.
- -Non dago Jon? - Auskalo!
- - Arratsaldean ez naiz lanera joango. - Hara bestea!
- Ez naiz haraino joango, ez horixe!
- Ea ba! Hasi lanean!
- Ospa! Oso haserretuta nago zurekin.
- Ixo! Liburutegian ezin da hitz egin.

**Osatu esaldiak interjekzio hauek erabiliz.**

Bai zera!      Aizu!      Kontuz!      Gaixoa!      Alajaina!

- \_\_\_\_\_ futbolera jolasten hanka apurtu du.
- \_\_\_\_\_ txakurra aske dago eta!
- - Loteria irabazi dut! - \_\_\_\_\_
- \_\_\_\_\_ ez ahaztu bihar goizeko 8:00etan gelditu garela.
- Bostgarren aldiz munduko txapeldun izan da. \_\_\_\_\_

## IZENONDOAK (ADJEKTIBOAK)

---

Bilatu izenondoak. Graduatzaileak ere markatu. Ondoren, aukeratu: izenondoa, askatua, errepikapenezkoa edo itsatsia.

- Datorren ikasturtean ikaslerik nagusienak izango gara.
- Niri ez zait piper berdea gustatzen.
- Bihar eguraldi txarra egingo duela entzun dut.
- June eta Aitor izugarri azkarrak dira.
- Zer nahiago duzu ura ala txokolate beroa?
- Nire oheko koltxoia gogorregia da.
- Atzo bazkari gogo-goxoa izan genuen.
- Klasean ni naiz ikaslerik gazteena.
- Gaur zerua erabat urdina da.
- Gizon hori oso jakintsua da.
- Anai-arreben, artean ni naiz nagusiena.
- Finlandiako neguak hotzegiak dira.
- Mikel ilegorria da.
- Lore hori polit-polita da.
- Hondartza hori ederrena da.
- Igerilekua nahiko handia da.
- Guztiz lainotuta dago gaur zerua.
- Tenperatura oso altua izango da hurrengo egunetan.
- Izugarrizko hotza egingo du asteburu honetan.
- Boligrafo urdina hartu dut.

## ORTOGRAFIA: IN ETA IL

---

Osatu hitz hauek in, il edo ll erabiliz:

- \_\_\_\_auteriak
- bi \_\_\_\_etea
- is \_\_\_\_la
- maki \_\_\_\_ajea
- ist \_\_\_\_u
- astak \_\_\_\_oa
- art \_\_\_\_ea
- ba \_\_\_\_uontzia
- z \_\_\_\_larra
- torti \_\_\_\_a
- aspir \_\_\_\_a
- burd \_\_\_\_a
- letag \_\_\_\_a
- gurp \_\_\_\_a
- te \_\_\_\_atua
- aurkitza \_\_\_\_e
- ba \_\_\_\_a
- s \_\_\_\_adura
- o \_\_\_\_ategia
- ko \_\_\_\_ara
- mar \_\_\_\_ela
- trikima \_\_\_\_ua
- \_\_\_\_urria
- atseg \_\_\_\_a
- buzt \_\_\_\_a